



AURKIBIDEA:

- Sarrera..... 2. or.
- Lehiaketa motak..... 3. or.
- Lehiaketaren antolakuntza..... 3. or.
- Partaideak..... 4. or.
- Lizentziak.....4. or.
- Kirol aseguruak..... 6. or.
- Diziplina araudia..... 6. or.
- Izena emateko kuotak..... 6. or.
- Teknikarien titulazioak..... 7. or.
- GKP ikastaroak..... 7. or.
- Partaidetza lehiaketetako arbitrajeak..... 8. or.
- **I. ERANSKINA:** Klubentzako laguntzak (teknikariak, arbitroak eta egituraren profesionalizazioa)..... 11. or.



2010-2011 denboraldian Gipuzkoan jokatzeko diren infantil, kadete eta jubenil kategorietako eskubaloi lehiaketa ofizialak 12tik 18 urtera bitarteko gazteen artean kirola sustatzeko planaren (GKP) barruan sartzen dira. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren iritziz, beraz, kategoria horietako eskubaloiaren antolakuntza GKPri egokiturik dago, eta ondorioz, erraztu egiten du planaren bi helburu giltzarriak lortzea:

- 12-18 urtekoen artean **ohiko kirolarien eta kirolari iraunkorren kopurua handitzea.**
- Ohiko kirolarien **kirol jardunaren kalitatea hobetzea.**

Bi helburu giltzarri horiek lortze aldera, "GKP garatzeko ardatz nagusiak" izeneko dokumentuan 7 estrategia nagusi eta 38 estrategia espezifiko jorratzen dira. Ondoren jasotzen diren akordioak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak eta Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak adostuak, testuinguru horretan kokatzen dira, eta estrategia horietako batzuen garapen espezifikoaren bidez egokitzen dela adierazten dute Gipuzkoako eskubaloiaren antolakuntza.

GKP etengabe bilakatzen ari den plana da, eta aldi behin ebaluazioak eta egokitzapenak egitea aurreikusten da. Akordio hau 2010-2011 denboraldian sartuko da indarrean, eta honako hauetan garatuko da: hitzarmenak, jarduera programak, lehiaketa oinarriak, laguntza oinarriak eta egoki ikusten den beste edozein formatu.

Halaber, akordio hau sinatzeak berarekin dakar infantil, kadete eta jubenil mailetako eskubaloi jarduerak ez hartzea kontuan klubaren laguntza arruntetan.



1- Partaidetza eta errendimendu lehiaketak.

GKP 1.1.1.¹ eta GKP 1.1.2.² estrategia espezifikoekin bat etorriz, infantil, kadete eta jubenil kategorietako lehiaketak partaidetza lehiaketa eta errendimendu lehiaketa bezala sailkatuko dira.

Honako hauek hartuko dira partaidetza lehiaketatzat:

- Infantil kategoriako lehiaketa guztiak.
- Kadete eta jubenil kategorietako lehiaketak, Euskal Ligak izan ezik.

Honako hauek hartuko dira errendimendu lehiaketatzat:

- Autonomia mailako lehiaketak: Euskal Ligak.

2- Lehiaketaren antolakuntza.

GFAk antolatuko ditu infantil eta kadete kategorietako partaidetza lehiaketak Gipuzkoako Federazioaren laguntza teknikoarekin.

Beraz, partaidetza lehiaketen lehiaketa sistema eta jardunaldi zehatzak Gipuzkoako Federazioak eta GFAk adostuko dituzte.

¹ GKP 1.1.1 Kirol modalitate bakoitzaren **kirol eskaintza dibertsifikatzea**, kirolariek beren jarrerei eta gaitasunei egokitutako kirol eskaintza izan dezaten. Gizonezko eta emakumezkoen zuzendutako eskaintzetan diskriminaziorik ez egotea zainduko da.

² GKP 1.1.2 Kirol modalitateak berrantolatuzko edo modalitateak GKPra egokitzeko prozesuen baitan, **kirol eskaintzaren dibertsifikazioa bultzatu, Kirolaren Euskal Planak** defendatzen duen ibilbideak bereizteko ereduari jarraituz.



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren eta Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren arteko akordioa 2010/2011 denboraldian GKP garatzeko.

Gipuzkoako Federazioak antolatuko ditu jubenilen partaidetza lehiaketak. Euskadiko Eskubaloi Federazioak antolatuko ditu errendimendu lehiaketak.

Lehiaketa hauek denak lehiaketa ofizialtzat eta GKP³ jardueratzat hartuko dira, ondorio guztietarako.

3- **Partaideak.**

12-18 urtekoek ohiko kirol jarduna eta jardun iraunkorra gauzatzeko oinarrizko egiturak kirol elkarteak izatea defendatzen du GKPk.

Horren harira, eta bi denboralditan behin-behinekoz ikastetxeei parte hartzen utzi ondoren, 2010-2011 denboraldian infantil, kadete eta jubenil kategorietako eskubaloi lehiaketetan Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko kide diren kirol elkarteek eta kirol taldeek hartuko dute parte. Beraz, infantil, kadete eta jubenil kategorietako lehiaketetan parte hartu nahi duten ikastetxeek kirol elkarteak eratu beharko dituzte izena emateko epea amaitu aurretik.

4- **Lizentziak**

Partaidetza eta errendimendu lehiaketen berezko izaerarekin bat etorritik, eta GKP 1.2.9⁴ estrategia espezifikuari jarraituz, lizentzia mota hauek eskatuko dira eskubaloi lehiaketetan:

³ GKPrek jarraibideak betetzen dituzten kirol jarduerak eta jarduera fisikoak, eta beraz, ezartzen diren laguntza publikoen onuradun direnak.

⁴ GKP 1.2.9 GFAk kontrataturiko **kirol aseguruaren poliza** GKP jardueretara zabaltzeko aukera **aztertu**.



- Infantil eta kadete kategorietako partaidetza lehiaketetan parte hartzeko eskola kiroleko lizentzia tramitatu beharko da ohiko administrazio bideak erabiliz.
- Errendimendu lehiaketetan eta jubenil kategorietako partaidetza lehiaketetan parte hartzeko eskola kiroleko lizentzia tramitatu beharko da ohiko administrazio bideak erabiliz. Emakumezkoen lehiaketei dagokienez, Euskal Liga jokatzeko sailkatzen diren taldeek une horretan tramitatuko dituzte federatuen lizentziak; ordura arte partaidetza taldeetat hartuko dira, eta beraz, eskola kiroleko lizentzia izango dute.

Kadete kategoriako talderik ez dagoen eskualdeetan, lehen urteko kadete jokalariei infantilen lizentzia egingo zaie, talde bakoitzeko gehienez ere bi laguni; halakoak salbuespen kasutzat hartuko dira. Horrelako jokalaria dauzkaten taldeek ezingo dute Gipuzkoako Txapelketako finalerdietan parte hartu.

Era berean, eta lehiaketen seriotasuna eta erakargarritasuna zaintze aldera (GKP 2.2.30⁵ estrategia), lizentziak eta triptikoa aurkeztu beharko dira partaidetza lehiaketetako partidak jokatu ahal izateko.

⁵ GKP 2.2.30 Lehiaketen antolakuntza orokorra **ezarri** kirolarien **ezaugarriak** eta **lehentasunak** aintzat harturik; lehiaketa sistemek erakargarriak izan behar dute, eta zabalkunde egokia eman behar zaie, bai hedabideetan bai interneten.



5- Kirol aseguruak

GKP 1.2.9⁶ estrategiak ezarritakoa betez, GFaren aseguruak estaliko ditu partaidetza lehiaketak. Nolanahi ere, eta GKP 2.3.36⁷ eta GKP 2.2.30⁸ estrategietan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak osasun eta mediku laguntza ematen dituen aseguruak eskainiko die nahi duten partaide guztiei.

6- Diziplina araudia

Kluben Arau Orokorrak erabiliko dira partaidetza lehiaketetan.

7- Izena emateko kuotak

GKP 1.2.5⁹ estrategiak ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak diru laguntzak jasoko ditu lehiaketaren kontrol teknikoa gauzatzeko (ikus dagokion Eranskinen puntua). Lehiaketetarako izena emateko zenbateko adostuak honako hauek dira:

Lehiaketa	Izena emateko kuotak
Infantilen partaidetza lehi.	32 €
Kadeteen partaidetza lehi.	54 €
Kadeteen errendimendu lehi.	54 €
Jubenilen partaidetza lehi.	54 €
Jubenilen errendimendu lehi.	54 €

⁶ Ikus 4. oin-oharra.

⁷ PDJ 2.3.36 Kirolari guztiek **osasun laguntza egokia**, beren kirol ibilbidearekin bat datorrena, jaso dezaten **prozedurarik egokienak aztertu**.

⁸ Ikus 5. oin-oharra.

⁹ GKP 1.2.5 GKPk izango dituen **laguntza publikoen formatu orokorra ezarri** (Gipuzkoako Foru Aldundia eta udalak).



8- Teknikarien titulazioak.

GKP 2.1.28.¹⁰ estrategian jasotakoa garatze aldera, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzak emango dizkie profil egokidun teknikariak dauzkaten kirol klub eta kirol elkarteei. Horretarako, GKP 2.1.25¹¹ eta GKP 2.1.26¹² estrategietan ezarritakoa betez, eskubaloiko kategoria hauetako kirol teknikariek zein profil edukiko duten zehaztuko da. Dokumentu honen eranskinean dago zehaztuta titulazio desberdinen balorazioa.

9- GKP Ikastaroak

Eskubaloiko prestakuntza ofizialean sartzea konplexua da, behe mailetako ikastaroak ordu kopuru handikoak baitira. Horrek prestakuntza ikastaroak egitea eragozten du, eta ondorioz, entrenatzaile askok ez dute batere titulurik. Egoera hori ikusirik, GFAk eta Gipuzkoako Eskubaloien Federazioak 2006/2007 denboraldian prestakuntza ikastaro malguagoak antolatzea erabaki zuten. Gipuzkoako Eskubaloien Federazioak konpromisoa hartu du 2010/2011 denboraldian 30 eta 50 ordu bitarteko ikastaroak ematen jarraitzeko, eranskinean jasotako baldintzetan.

¹⁰ GKP 2.1.28. Laguntza publikoen marko orokor bat ezarri, hitzartutako profilak betetzen dituzten kirol teknikarien ordainsariaren zati bat finantzatzeko.

¹¹ GKP 2.1.25 GKPren jarduerak beren gain hartuko dituzten kirol teknikariek zein profil (adina, prestakuntza...) izango duten zehaztu.

¹² GKP 2.1.26 GKP modalitateak berrantolatzeke edo egokitzeko prozesuen markoaren baitan, GKP jardueretan ariko diren kirol teknikariek zer titulu izango duten zehaztu modalitate, kategoria eta ibilbide bakoitzean.



10- Partaidetza lehiaketetako arbitrajeak

Arbitro eta epaile gabezia faktore baldintzatzailerak dira lehiaketa jarduerak gauzatzeko. *GKP garatzeko ardatz nagusiak* dokumentuan azaltzen diren estrategia espezifikoetako bik arazo hau aipatzen dute:

GKJ 2.2.31 Epaile eta arbitroen behar eta ezaugarri espezifikoak zehaztea, GKP lehiaketak antolatzeko modalitate bakoitzea eta ibilbide desberdinetan.

GKJ 2.2.32 Epaileak eta arbitroak erakartzeko eta prestatzeko programak prestatu eta abian jarri, nola gizonezko hala emakumezkoentzat, era honetako hutsuneak nabari diren modalitateetan edo partaidetza nabarmen handituko dela aurreikusten den modalitateetan.

Aipatutako strategiak garatze aldera, 2008/2009 denboraldian arbitroaren irudi berria zehaztu genuen, GKP arbitroa, ondoko ezaugarriak dituen:

- Kirol klub edo kirol elkarteren bateko kide izan.
- 16 urtetik gora eduki.
- 8 eta 12 ordu bitarteko prestakuntza ikastaroa eginda izan.
- Eskubaloiko beste zeregin batzuekin bateragarria (jokalaria, entrenatzailea).
- Infantil eta kadete kategorietako partaidetza lehiaketetan gutxienez 15 partida zuzentzeko konpromisoa, bizilekua duen lekutik 20 kilometroko geografia eremuan.



- Hala nahi duten GKP arbitroek aukera izango dute beste partida batzuetarako izendatuak izateko, beste kategoria batzuetako partidak edo bere geografia eremutik kanpokoak; **hauek ez dira aintzat hartuko (dagokion) GKP laguntzearako.**
- Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak izendatuko ditu.
- GFAk kontrataturiko aseguru orokorrak babestuko ditu GKP arbitroak.

GKP 1.1.1¹³ eta GKP 1.1.2¹⁴ estrategietan ezarritakoaren arabera, infantil eta kadeteen parte-hartze lehiaketetan GKP arbitroek egingo dituzte epaile lanak; horrek ez du esan nahi, ordea, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak ezingo duenik arbitroen eskolako arbitrorik izendatu lehiaketa hauetan.

Era berean, eta GKP 2.2.32¹⁵ eta GKP 1.2.5¹⁶ estrategietan ezarritakoa garatze aldera, kirol klubek plan honetan parte har dezaten bultzatuko du GFAk; horretarako, 225 euroko laguntza emango die klubeko kide izan eta aurrez aipatutako baldintza betetzen dituzten GKP arbitro bakoitzeko. GKP arbitroak (16 urte baino gehiago) 15 partida arbitratzen baditu, GFAk 255 euroko diru laguntza emango dio kirol klubari edo taldeari, arbitro bakar baten izena eman badu. Biren edo gehiagoren izena eman badu, 250 euroko diru laguntza jasoko du bakoitzeko.

¹³ Ikus 1. oharra

¹⁴ Ikus 2. oharra

¹⁵ Ikus aurreko orria

¹⁶ Ikus aurreko orria



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren eta Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren arteko akordioa 2010/2011 denboraldian GKP garatzeko.

Honako tarifa hauek ezarri dira 2010-2011 denboraldirako:

Jubeniletan	26 €
Kadeteetan	26 €
Infantiletan	15 €

Tarifa hauen %10 arbitro batzordearen esku geratuko da; honek, formazio ikastaroak antolatzeko, ekipaiak erosteko eta abar erabiliko du.



ERANSKINAK

I ERANSKINA: Klubentzako laguntzak

Infantil, kadete eta jubenil kategorietako eskubaloi taldeak dauzkaten Gipuzkoako kirol klub edo kirol elkarteek GKP laguntzak jaso ahal izango dituzte, betiere ondoko baldintzak betetzen badituzte:

- Lurralde federazioek antolatutako lehiaketetan parte hartu behar dute, eta hala badagokie, euskal federazioek antolatutako lehiaketetan.
- Infantil, kadete eta jubenil kategorietako kirolariei **GKP kuota** kobratu behar die, **100** eta **270 euro** artean (instalaziorako sarrera ez dago barne) partaidetza ibilbideko taldea bada, eta 100 eta 100 eta 320 euro artean, errendimenduko taldea bada. Kuota horren barnean egongo dira derrigorrezko kontzeptu guztiak.
- Gazteen partaidetza bultzatuko dute kirol modalitate honetako infantil, kadete eta jubenil kategorietan; eta era berean, berdintasunean oinarritutako kirol jardunaren balioak sustatuko dituzte, edozein dela ere partaideen sexua, hizkuntza, jatorria, egoera ekonomikoa, gaitasun fisikoa, urritasuna...
- Diru laguntzen Dekretu Orokorrak ezarritakoaren arabera egin beharko dute diru laguntza eskaera.



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren eta Gipuzkoako Eskubaloien Federazioaren arteko akordioa 2010/2011 denboraldian GKP garatzeko.

Hiru kontzeptu hauen arabera emango dira diru laguntzak:

- **Kirol teknikariak.**
- **GKP arbitroak.**
- **Kluben egitura profesionalizatzea.**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuan egingo dira diru laguntza hauen izapideak, GKP akordioa egin duten herrietako kirol klub edo kirol elkarteek izan ezik; kasu horretan, diru laguntzen izapideak Udalaren Kirol Zerbitzuan egingo dira, GKP arbitroentzako diru laguntzak izan ezik, horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuan eskatuko baitira.

Kirol Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen dituen egiaztagiria (tituluen egiaztagiria, lan harremanaren egiaztagiria, kontu korronteen laburpenak, kuotaren informazio zirkularrak eta abar) aurkeztu egin beharko dituzte kirol klubek edo kirol elkarteek.



Kirol teknikarientzako laguntzak

Tituludun teknikariek entrenatzen duten infantil, kadete eta jubenil kategorietako talde kopuruaren arabera jasoko dute diru laguntza klubek eta ikastetxeek.

Tituluari dagokionez, hiru maila ezarri dira:

- **Titulurik gabeko** teknikariak: kategoria baterako edo entrenatzen duten ibilbiderako behar den gutxieneko titulurik ez duten teknikariak (ezin liteke diruz lagundu).
- **Gutxieneko titulu**a daukaten teknikariak (diruz lagun daiteke).
- Titulu egokia daukaten teknikariak (diruz lagun daiteke).

2010-2011 denboraldian gutxieneko titulutzat edo titulu egokitzat hartuko direnak jaso ditugu ondoko taulan.

2010/2011 denboraldirako titulu akademikoak

Lehiaketa	Gutxienekoa	Egokia
Infantilen partaidetza lehiaketa	Tafyd	Tafyd
Kadeteen partaidetza lehiaketa	Tafyd	Irakasle ikasketak Heziketa fisikoa;
Kadeteen errendimendu lehiaketa (Gizonezkoen Euskal Liga)	Irakasle ikasketak Heziketa fisikoa;	GHIN (ikaslea) (*)
Jubenilen partaidetza lehiaketa	Irakasle ikasketak Heziketa fisikoa;	GHIN (ikaslea) (*)
Jubenilen errendimendu lehiaketa (Gizonezkoen Euskal Liga)	GHIN (ikaslea) (*)	SHEE

(*) HEZIKETA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIEN LIZENTZIATURAKO LEHEN ZIKLOA GAINDITU DUTENAK



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren eta Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren arteko akordioa 2010/2011 denboraldian GKP garatzeko.

2010/2011 denboraldirako federazio tituluak eta esperientzia

Lehiaketa	Federazio tituluak	
	Gutxienekoa	Egokia
Infantilen partaidetza lehiaketa	GKP monitorea	2 GKP monitorea
Kadeteen partaidetza lehiaketa	2 GKP monitorea	1. Maila
Kadeteen errendimendu lehiaketa	1. Maila	2. Maila
Jubenilen partaidetza	2 GKP monitorea	2. Maila
Jubenilen errendimendu lehiaketa	1. Maila	2. Maila

Kirol teknikariek gutxienez 16 urte izan beharko dituzte eta bakoitzak gehienez ere bi talderen ardura hartu ahal izango du.

Daukaten tituluaz gainera, lan egoera ere kontuan hartuko da.

Ondoko laguntzak emango zaizkio taldeari:

Ibilbidea	Gutxieneko titulua		Titulu egokia	
	Boluntarioa	Profesionala	Boluntarioa	Profesionala
Partaidetza	190 €	320 €	270 €	450 €
Errendimendua	330 €	560 €	450 €	750 €

Kirol teknikariei dagokien laguntza 1 eta 1,5 bitarteko biderkagai batez biderkatuko da, infantiletatik jubeniletara bitarteko kate osoa edukitzea balioeste aldera. Biderkagai hori honela kalkulatu da:

$$\text{Katearen biderkagaia: } (N_{cad} * 1.5 + N_{1/2cad} * 1.2 + S) / N$$



Kate osoa osatzen duten taldeen kopurua da **Ncad**, kate erdia (infantilak-kadeteak) osatzen duten talde kopurua da **N1/2cad**, **S** ekipo solteen kopurua (inongo katetan ez dagoena), eta **N**, berriz, kirol klub edo elkarteko kide diren taldeen kopurua.

Katearen biderkagaia aplikatzeko baldintza izango da entitate parte hartzaileek GKP arbitroak izendatzea. GKP arbitrotzat joko da federazioak izendatua dena eta subentzionagarri izateko behar diren 15 partidara (infantil, kadete eta jubeniletan) iristen dena. Entitate bakoitzak jarri beharreko gutxienerako arbitro kopurua zehazteko, aurkezten duen ekipo kopurua hartuko da kontuan. Honela:

5 eta 9 ekipo bitarte	arbitro 1
10 eta 14 ekipo bitarte	2 arbitro
15 eta 19 ekipo bitarte	3 arbitro
20 ekipo edo gehiago	4 arbitro

Kopuru hauek dira gutxienez beharko direnak katearen biderkagaia aplikatzeko, baina ez dago eragozpenik entitateek arbitro gehiago jar ditzaten.

Taulan aipatutako gutxienerako ekipo kopurura iristen ez diren entitateei, katearen biderkagaia aplikatuko zaie, lehiaketarako arbitroak jarri edo ez. Taulan aipatzen den gutxienerako ekipo kopurura iristen diren baina lehiaketarako GKP arbitrorik jartzen ez duten entitateei ez zaie aplikatuko katearen biderkagaia.

Ekipo kopuruari dagokion arbitro kopurura iristen ez den kasuetan, nahiz eta norbaitek inskripzioa egin, % 50eko murrizketa egingo da katearen biderkagaian.



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren eta Gipuzkoako Eskubaloien Federazioaren arteko akordioa 2010/2011 denboraldian GKP garatzeko.

GKP arbitroentzako laguntzak

Kuantifikazioa:

16 urtetik gora izan eta 15 partida gidatzen dituen GKP arbitro bakoitzagatik kirol klubak edo kirol elkarteak 225 euro jasoko ditu GFAtik.



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren eta Gipuzkoako Eskubaloien Federazioaren arteko akordioa 2010/2011 denboraldian GKP garatzeko.

Kirol klubuen profesionalizazioa

Aipatutako baldintzak betetzeaz gainera honako hauek betetzen dituzten kirol klub edo kirol elkarteentzat dira laguntza hauek:

- Infantil, kadete eta jubenil kategorietan GKP akordioa duten modalitateetako 8 talde edo gehiago edukitzea entitate batek edo batzuek.
- Langile bat lan egoera normalizatuan dagoela frogatzea.

Esleipen irizpideak:

- Talde kopuruaren arabera kostu gordinaren portzentaje bat lagunduko da diruz (ikus ondoko taula).
- Gutxieneko kostu gordina 12.000 euro izango da.
- Gehienezko kostu gordina talde kopuruaren arabera zehaztuko da, baina ez da 25.000 euro baino gehiago izango (ikus ondoko taula).



GKP egiturentzako diru laguntzen baremo taula, 2010/2011 denboraldia

Taldeak	laguntza %	Gutxieneko soldata gordina	Gutxieneko laguntza	Gehienezko soldata gordina (€)	Gehienezko laguntza (€)
8	11	12000	1320	12000	1320
9	12	12000	1440	13000	1560
10	13	12000	1560	14000	1820
11	14	12000	1680	15000	2100
12	15	12000	1800	16000	2400
13	16	12000	1920	17000	2720
14	17	12000	2040	18000	3060
15	18	12000	2160	19000	3420
16	19	12000	2280	20000	3800
17	20	12000	2400	21000	4200
18	21	12000	2520	22000	4620
19	22	12000	2640	23000	5060
20	23	12000	2760	24000	5520
21	24	12000	2880	25000	6000
22	25	12000	3000	25000	6250
23	26	12000	3120	25000	6500
24	27	12000	3240	25000	6750
25	28	12000	3360	25000	7000
26	29	12000	3480	25000	7250
27	30	12000	3600	25000	7500
28	31	12000	3720	25000	7750
29	32	12000	3840	25000	8000
30	33	12000	3960	25000	8250
31	34	12000	4080	25000	8500
32	35	12000	4200	25000	8750
33	36	12000	4320	25000	9000
34	37	12000	4440	25000	9250
35	38	12000	4560	25000	9500

Diru laguntzaren zenbatekoa % 10 gehituko da egituraren kontzeptuan:

- eskaera modalitate bakarrean egin duten entitateentzat, baldin eta pertsona kontratatu gisa Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatua edota goi mailako entrenatzailea aurkezten badute.
- eskaera modalitate batean baino gehiagotan egin duten entitateentzat, baldin eta pertsona kontratatu gisa Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziatua aurkezten badute.